Urnietako
udala

# 2019KO OTSAILAREN 28KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 28 DE FEBRERO DE 2019

**Akta zenbakia:** 02/2019
**Bilera data:** 2019-02-28
**Bilera mota:** Ez-ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 19:00- 19:13
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:** Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**

Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Mª Pilar Sarasola Bulman
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Manuel Mayoz Ostolaza
Itziar Artola Bedia
Consuelo Frutos Gonzalez
Ivan Haro Marcos

**Ez dira bertaratu eta adierazi duta:**

Mikel Izagirre Rekondo
Ixiar Martiarena Lizarazu
Xabier Yurramendi Garmendia

**Idazkaria:**
Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2019ko otsailaren 28an, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 19:00etan, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ez-ohiko bilera egiteko.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

**Aztergaiak:**

**1.- Musika eskolarako lan poltsarako hitzarmena onartzea.**

**2.- Herritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen udal-ordenantzaren aldaketaren behin-betiko onartzea.**

**Acta nº:** 02/2019
**Fecha:** 28-02-2019
**Tipo de reunión:** Pleno Extraordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 19:00- 19:13
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**

**Alcalde:** Mikel Pagola Tolosa

**Concejales:**

Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Mª Pilar Sarasola Bulman
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Manuel Mayoz Ostolaza
Itziar Artola Bedia
Consuelo Frutos González
Iván Haro Marcos

**No asisten y excusan su ausencia:**

Mikel Izagirre Rekondo
Ixiar Martiarena Lizarazu
Xabier Yurramendi Garmendia

**Secretario:**
Mateo Habibi Astigarraga López

En la villa de Urnieta a 28 de febrero de 2019, siendo las 19:00 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión extraordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

**Orden del día:**

**1.- Aprobar el Convenio para la bolsa de trabajo de la Escuela de Música.**

**2.- Aprobar definitivamente la modificación de la ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano.**



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

**3.- 2019ko finantza-kontroleko planaren berri ematea.**

**3.- Dar cuenta del plan de control financiero de 2019.**

*********************

**1.- Musika eskolarako lan poltsarako hitzarmena onartzea.**

**Aurrekariak**

Donostiako Musika eta Dantza eskolak irakasleen lan poltsak sortuko ditu beste musika eskolekin lankidetzan. Helburua da lankidetzan hasten diren musika eskolentzako erabilgarriak izatea lan poltsa horiek.

Oso zaila da tokiko esparruan musika eta dantzako irakasleen lan poltsak sortzeko hautapen prozesuak egitea, kudeaketa materialaren konplexutasuna eta deialdia egiten duen entitateari sortutako kostu ekonomikoak direla eta. Gainera, tokiko entitate gehienen kasuetan, horrelako prozesuak egiteko espezializatutako jendea falta da. Halaber, aldi berean prozesu eta deialdi ugari egoteak administrazioari baliabideak barreiatzea eta kostuak biderkatzea dakarkio, baita prozesuetan parte hartzeko interesa duten herritarrei ere.

Irakasleen kontratazioko hautaketa prozesu bateratu bat egiteko jarduketa esparru komun bat ezartzeak abantaila ugari ditu. Hautaketa prozesuak beren tokiko autonomia erabilita hartan parte hartzen duten lurraldeko Musika eta Dantza Ikastetxeen beharrei erantzun behar die.

Donostiako Musika eta Dantza eskolatik aukera ikusi da eskola kopuru handi batekin hitzarmenak egiteko. Kudeaketa errazteko, banan-banan sinatuko dira eskola bakoitzak dituen behar eta ezaugarri guztiei bide emateko beharrezko hitzarmen guztiak. Urnietako Udalaren Musika Eskolak interesa du poltsa horiek erabili ahal izateko.

**1.- Aprobar el Convenio para la bolsa de trabajo de la Escuela de Música.**

**Antecedentes**

La Escuela de Música y Danza de Donostia va a crear bolsas de trabajo de profesorado en colaboración con otras escuelas de música. El objetivo es que estas bolsas de trabajo puedan ser utilizadas por las escuelas de música que se unan a colaborar.

Es evidente la dificultad que genera en el ámbito local la realización de los procesos selectivos para la confección de bolsas de trabajo de profesorado de Música, derivados de la complejidad de su gestión material, y de sus costes económicos generados a la entidad convocante, a lo que se une en el caso de la mayoría de entidades locales, la carencia de personas especializadas para llevar adelante este tipo de procesos. A su vez, la multiplicidad de ofertas de procesos y convocatorias simultáneas genera dispersión de recursos y multiplicación de costes para las Administraciones y para los y las ciudadanas interesadas en participar en los procesos.

Establecer un marco común de actuación para llevar a cabo un proceso selectivo unificado para la contratación de profesorado tiene múltiples ventajas. A la vez el proceso selectivo debe dar cabida a las diferentes necesidades de los Centros de Enseñanza Musical y de Danza del entorno territorial que, voluntariamente y en el ejercicio de su autonomía local, se adhieran al mismo.

Desde la Escuela de Música y Danza de Donostia se ha visto la posibilidad de convenir con un número de Escuelas amplio, y que para facilitar la gestión se irán firmando de uno a uno todos los convenios necesarios para dar cauce a todas las necesidades y particularidades que tienen cada una. La Escuela de Música del Ayuntamiento de Urnieta tiene interés en poder utilizar esas bolsas de trabajo.

# 2019KO OTSAILAREN 28KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 28 DE FEBRERO DE 2019

**Zuzenbideko oinarriak**

1.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 11.. artikulua. Kudeaketa-mandatuak.

2.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

3.- Sektore Publikoko Araubide Juridikoko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 48. artikulua. Hitzarmenen baliozkotasun eta eraginkortasun baldintzak.

4.- Urriaren 27ko 289/1992 dekretua, arautu gabeko Musikaren irakaskuntza espezifikoko Zentroen, Musika Eskolen sorkuntza eta funtzionamenduaren oinarrizko arauak arautuko dituztenak, Euskal Autonomia Erkidegoan.

5.- Abenduaren 11ko 229/2007 dekretua, musika irakaskuntza profesionalen curriculuma eta irakaskuntza horietarako sarbidea ezartzen duena.

Ikusirik hitzarmenaren justifikazio memoria.

Ezarri beharreko aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

Ikusita 2019ko otsailaren 11ko Herritargoko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 10.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO EH BILDU: 1
URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA: 2.

Aurka: 0.

Abstentzioak: 0.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 10 zinegotzien aho bateko adostasunez honako hau

**Fundamentos de derecho**

1.- Artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Encomiendas de gestión.

2.- Artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Definición y tipos de convenios.

3.- Artículo 48 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Requisitos de validez y eficacia de los convenios.

4.- Decreto 289/1992, de 27 de octubre, por el que se regulan las normas básicas por las que se regirán la creación y funcionamiento de los Centros de enseñanza musical específica, no reglada, Escuelas de Música, en la Comunidad Autónoma de Euskadi

5.- Decreto 229/2007, de 11 de diciembre, por el que se establece el currículo de las enseñanzas profesionales de música y el acceso a dichas enseñanzas.

Vista la memoria justificativa del convenio.

De conformidad con la normativa aplicable citada la adopción del acuerdo corresponde al Pleno.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Ciudadanía en sesión celebrada el 11 de febrero del 2019.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 10.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO EH BILDU: 1
GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA: 2.

En contra: 0.

Abstenciones: 0.

El Pleno por unanimidad de los 10 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

**ERABAKITZEN DU**

**Lehena.** Donostiako Udal Musika Eskolaren eta Urnietako Udalaren arteko kudeaketa-mandatuaren hitzarmena onartzea, lan poltsak era bateratuan kudeatzeko, musika eta dantza irakaskuntza zentroetan erabili daitezen. Ondoriozko Musika irakasle lan-poltsak Kulturnieta S.A.-k kudeatzen duen Urnietako Lourdes Iriondo Musika eskolaren irakasle beharrak aldi baterako betetzeko erabiliko dira.

**Bigarrena.-** Alkatea ahalduntzea hitzarmen hori sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

**Laugarrena.-** Hitzarmen hau Idazkaritza eta Sustapen sailen helaraztea

**ACUERDO:**

**Primero.** Aprobar el Convenio de encomienda de gestión entre la Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia / San Sebastián y el Ayuntamiento de Urnieta para la gestión unificada de bolsas de trabajo para ser utilizadas en los centros de enseñanza musical y danza. Las bolsas de trabajo de profesorado de Música resultantes serán utilizadas para la cobertura temporal de las necesidades de profesorado de la Escuela de Música Lourdes Iriondo de Urnieta, gestionada por Kulturnieta S.A.

**Segundo.-** Facultar al alcalde para la firma del mismo.

**Tercero.**- Ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Cuarto.**- Trasladar el presente acuerdo a los departamentos de Secretaría y Promoción.

**2.- Herritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen udal-ordenantzaren aldaketaren behin-betiko onartzea.**

Eztabaida garaia hasita, <u>Consuelo Frutos, Udal Talde Sozialistako bozeramaleak</u> hartu du hitza, adierazteko batzordean puntu hau bozkatu zenean abstenitu egin zirela, izan ere, hasieran ordenantzan aldatu zen testuarekin ados egon arren, agerpen publiko garaian herritar batek aurkeztutako alegazioak egoera berriz planteatzera eraman ditu. Alegazio horretan azaltzen da ez dagoela bitartekorik TAO bidez kontrolatutako eremuetan aparkaldia frogatzeko, eta txosten teknikoan argudiatzen da Udaltzaingoaren jarduketan egiazkotasunez jokatu dutela aurresuposatzen dela. Horregatik, bere iritziz, herritarra babesgabetasun egoeran geratuko litzateke.
Bestalde, gehitu du beren nahia izango zela modu independentean bozkatzea, alde batetik, alegazioa eta bestetik, ordenantzaren aldaketaren behin betiko onarpena.
Horregatik guztiagatik, ordenantza honen aldaketa osoarekin ia ados egon arren, abstenitu egingo dira bozketan, aurkeztutako alegazioan adierazitakoarekin ere ados baitaude.

**2.- Aprobar definitivamente la modificación de la ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano.**

Abierto el turno de debate toma la palabra <u>Consuelo Frutos portavoz del Grupo Municipal Socialista</u> para manifestar que en la votación de este punto en la comisión se abstuvieron ya que aún estando de acuerdo inicialmente con el texto modificado de la ordenanza, la alegación presentada por un ciudadano durante el período de exposición pública les ha hecho replantearse la situación. En dicha alegación se explica que no existen los medios para probar el tiempo de estacionamiento en las zonas controladas de OTA, y en el informe técnico se argumenta que se presupone la veracidad de la actuación de la Policía Municipal. Es por ello, que en su opinión en este aspecto se produciría una indefensión hacia el ciudadano.
Por otro lado, añade que les hubiera gustado que se votara de forma independiente la alegación por un lado y la aprobación definitiva de la modicación de la ordenanza por otro lado.
Por todo ello, aún estando de acuerdo con la práctica totalidad de la modificación de este ordenanza se van a abstener en la votación ya que también están



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D    943 008 000    943 008 037    urnietakoudala@urnieta.eus    urnieta.eus

de acuerdo con lo expuesto en la alegación presentada.

Mikel Pagola alkateak hartzen du hitza esateko bere ustez herritarrak aurkeztutako alegazioan ez duela eskatzen ibilgailua aparkatuta egon den denbora egiaztatzeko sistema bat jartzea, baizik eta segurtasun juridikoa bermatze aldera. Alde hortatik bi gauza desberdin direla gehitzen du.
Jarraitzen du esanez batzordean idazkariak azaldu zuen bezala segurtasun juridikoa bermatuta dagoela eta gaineratzen du bere ustez ez dela egokia maila berean jartzea herritar baten hitza eta udal funtzionario izaera daukan pertsona batena, zeren azken honek egiten dituen txostenak eta salaketak egiazkotasun konpromezuarekin egiteko ardura dauka bere karguagatik.

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola, para decir que en su opinión la persona que presentó la alegación no solicita en la misma que se ponga un sistema para certificar el tiempo de estacionamiento, sino para garantizar la seguridad jurídica. En ese sentido, añade que son dos cosas diferentes.
Continua diciendo que tal y como el secretario explicó en la comisión, la seguridad jurídica está garantizada y añade que en su opinión no es adecuado poner al mismo nivel la palabra de un/a ciudadano/a y la de una persona con caracter de funcionario/a municipal, ya que los informes y denuncias que realiza la persona funcionaria, debe hacerlos según el principio de veracidad, debido a su cargo.

Mateo Astigarragak Udal idazkariak hartzen du hitza adierazteko araudi bat onartzeko prozedura arautzen duen legeak ezartzen duena hauxe dela: alegazioen ebazpena eta behin-betiko onarpena batera onartu edo baztertu behar direla. Honen arabera ezin da bozketa banandu.

Toma la palabra el secretario municipal Mateo Astigarraga para exponer que la ley que regula el procidimiento de aprobación de una normativa es la siguiente: hay que aprobar o denegar conjuntamente la resolución de alegaciones y la aprobación definitiva. Según ello, no se puede dividir la votación.

Consuelo Frutos Udal Talde Sozialistako bozeramaleak hartu du hitza adierazteko ados dagoela idazkariaren azalpenarekin bozketari dagokionean, eta bestalde, zehaztu nahi du inoiz ere ez duela zalantzan jarri udaltzainek egindako txostenen sinesgarritasuna.

Toma la palabra Consuelo Frutos portavoz del Grupo Municipal Socialista para manifestar que está de acuerdo con la explicación del Secretario en cuanto a la votación y por otro lado quiere matizar que en ningún momento ha puesto en duda la credibilidad de los informes emitidos por los agentes de la Policía Municipal.

Mikel Pagola alkateak erantzuten du Udaltzaingoaren agenteek egindako txostenen sinesgarritasuna ez bada zalantzan jartzen, ez duela ulertzen nolatan Alderdi Sozialistak adierazi dezakeen ados daudela herritar horrek egindako babesgabetasun aldarrikapen horrekin.
Bukatzeko berresten du udal langileek egindako txostenek beraientzako sinesgarritasun guztiak eta berme guztiak dituztela.

El alcalde Mikel Pagola responde que si no se pone en duda la credibilidad de los informes realizados por agentes municipales, no entiende cómo el Grupo Municipal Socialista puede decir que están de acuerdo con esa reivindicación de indefensión por parte de un ciudadano/a.
Para terminar, ratifica que los informes realizados por el personal municipal tienen para ellos toda la credibilidad y garantía.

**A) Aurrekariak**

I. Udalbatzarrak 2016ko urtarrilaren 26an Herritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-

**A) Antecedentes.**

I. El Pleno aprobó con fecha 26 de enero de 2016 la ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de

ordenantza onartu zuen. Araudi hau 69 zenbakidun 2016ko apirilaren 14ko GAOn argitaratu zen.

II. Urnietako Udalaren 2018ko abenduaren 17ko ez-ohiko osoko bilkuran Herritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena eman zitzaion.

III. 2019ko urtarrilaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 8. zenbakian argitaratu zen iragarkiaren bitartez adierazi zen jendaurrera ateratzen zela espedientea eta interesdun pertsonak berau aztertu ahal izango zutela Udalaren Idazkaritzaren bulegoetan 8:30etatik 14:30etara eta Udal honetako web gunean 30 lanegunez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

IV. Adierazitako epean Udaleko Erregistro Orokorrean iradokizunak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango ziren.

V.- 2019ko otsailaren 12an jaso da [redacted] aurkeztu duen idatzia, Ordenantzaren aldaketari egiten dizkion alegazioak azaltzeko.

Alegazioan zera eskatu du: *"Udal ordenantzaren aldaketaren ondorioz, bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen ordenantza, hain zuzen ere, artikuluak. 9.7.1-A a, b, c, bertan behera uztea eskatzen dut, segurtasun juridikoaren arabera, 1978ko Konstituzioaren arabera, Estatuaren VIII. Titulua, Estatuaren lurralde-antolaketa, eta toki-erakundeak ez du frogarik egiten, ez dago frogatzeko biderik, eta ez dago horren frogagiririk".*

VI. 2019ko otsailaren 22an, Udal Idazkariak egindako txostenean alegazioa ezestea proposatzen da, bertan adierazten diren arrazoien arabera.

**B) Legedi aplikagarria**

- Espainiako 1978ko Konstituzioa; 9, 137 eta 140-142 artikuluak.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena (TAOL); 4.1.a), 22.2.d), 25.2.g), 49., 65.2. eta 70.2. artikuluak.

carácter urbano. La mencionada ordenanza fue publicada en el BOG de 14 de abril de 2016 (nº 69).

II. El Pleno extraordinario del Ayuntamiento de Urnieta celebrado el 17 de diciembre de 2018, acordó aprobar inicialmente la modificación de la ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano.

III. En el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 8 de 11 de enero de 2019 se publicó anuncio en el que se indicaba el sometimiento a información pública del expediente, a cuyos efectos las personas interesadas podían consultar el mismo en las oficinas de la Secretaría del Ayuntamiento en horario de 8:30 a 14:30 horas así como en la página web del Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, contados a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

IV. Durante el indicado plazo podían presentarse en el Registro del Ayuntamiento las reclamaciones y sugerencias que se tengan por conveniente.

V. Consta presentado en fecha 12 de febrero de 2019, un escrito presentado por [redacted] por el que presenta alegaciones a la citada modificación de Ordenanza.

En la alegación solicita que "*en virtud de la modificación de la ordenanza municipal, reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad de las vías públicas, en concreto la suspensión del art. 9.7.1-A a,b,c, solicito, se mantengan en virtud de la seguridad jurídica, de Constitución 1978, Título VIII organización territorial del Estado, tiene competencias territoriales, no hay ninguna acreditación que demuestre, la validez del tiempo, fijada por la entidad local, no existe medio de prueba*".

VI. En fecha 22 de febrero de 2019, se ha emitido informe por el Secretario municipal, en el que se propone la desestimación de la alegación por los motivos que se indican en dicho informe.

**B) Legislación aplicable**

- Constitución española de 1978: artículos 9, 137 y 140 a 142.
- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local (LRBRL): artículos 4.1.a) 22.d), 25.2.g), 49, 65.2 y 70.2.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

- 9/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; 77.5, 128., 129. eta 133. artikuluak.
- 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; 88. artikulua.
- 320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren alorreko zigor-prozedurari buruzko araudia onartzen duena: 14. artikulua.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onesten duena; 56. artikulua.

Ezarri beharreko aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

Ikusita 2019ko otsailaren 25eko Antolakuntza Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 8.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO EH BILDU: 1

Aurka: 0.

Abstentzioak: 2. (URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA)

Udalbatzarrak, beharrezko legezko gehiengoarekin ondorengoa

**ERABAKITZEN DU**

**Lehena.-** Ezestea [redacted] 2019ko otsailaren 12an Herritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantzaren aldaketaren hasierako onespenari aurkeztutako alegazioa Idazkariak 2019ko otsailaren 22an egindako txostenean adierazitako arrazoiengatik. Txosten horren kopia intersdunari bidaliko zaio erabaki honen jakinarazpenarekin batera.

- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas: artículos 77.5, 128,129 y 133.
- Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial: artículo 88.
- Real Decreto 320/1994, de 25 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Procedimiento Sancionador en materia de Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial: artículo 14.
- El Real Decreto Legislativo 781/1986 del 18 de abril, que aprueba el texto refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local: artículo 56.

De conformidad con la normativa aplicable citada la adopción del acuerdo corresponde al Pleno.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización en sesión celebrada el 25 de febrero del 2019.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 8.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO EH BILDU: 1

En contra: 0.

Abstenciones: 2. (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA)

El Pleno adopta con la mayoría legal requerida, el siguiente

**ACUERDO:**

**Primero.-** Desestimar la alegación presentada por [redacted] el 12 de febrero de 2019 contra el acuerdo de aprobación inicial de la modificación de la ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano por los motivos expresados en el informe de Secretaría, de fecha 22 de febrero de 2019, del que se remitirá copia al interesado junto con la notificación del presente

acuerdo.

**Bigarrena.-** Behin betiko onartzea herritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantzaren aldaketa.

**Hirugarrena.-** Udal ordenantzaren testua osorik argitaratzea, bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, bai udaleko web-atarian, bai iragarkien oholean, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan agintzen denari jarraituta indarrean sartze aldera.

**Laugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea alegazioa aurkeztu duen interesdunari.

**Segundo.-** Aprobar definitivamente la modificación de la ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano.

**Tercero.-** Publicar el texto íntegro de la Ordenanza municipal en el portal web del Ayuntamiento, en el Tablón de Edictos y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a los efectos de su entrada en vigor, a tenor de lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

**Cuarto.-** Notificar el presente acuerdo a la persona interesada que ha formulado alegaciones.

**3.- 2019ko finantza-kontroleko planaren berri ematea.**

Mikel Pagola alkateak sarrera ematen dio puntuari adieraziz batzordean eman zela honen inguruko informazioa, baina gaurkoan ere Aitziber Zurutuza kontuhartzaileak laburpen bat egingo duela.

Aitziber Zurutuza kontuhartzaileak hartzen du hitza adierazteko 2017/424 Errege Dekretuaren ondoren eta iaz Gipuzkoako Foru Aldudiak onartutako 32/2018 Foru Dekretuaren ondorioz, lehendabizikoz Udaletako organu kontu-hartzaileak behartuta daudela urteko barne kontrol finantzario bat prestatzera. Urnietako kasuan, entitate guztien kontrol ekonomiko-finantzarioa egingo dela, bai Udalarena bai sozietateena.
Plan honetan aurten egingo diren ekintzak azaltzen direla gehitzen du, bai gastuen aldetik bai sarreren aldetik, eta hiru entitateetan. Ekintza hauek gauzatzen direnean, gauzapen horren ondorioak berriro Udalbatzarrean azaldu beharko direla, hobekuntza akzioak jasoko dituen plan batekin batera.

Ondorioz, Udalbatzarra 2019ko finantza-kontroleko planaren berri emanda geratzen da.

**3.- Dar cuenta del plan de control financiero de 2019.**

El alcalde Mikel Pagola introduce el punto exponiendo que en la comisión se informó sobre este punto, pero que la interventora Aitziber Zurutuza volvería a hacer un resumen.

Toma la palabra la interventora Aitziber Zurutuza para exponer que después del Real Decreto 2017/424 y como consecuencia del Decreto Foral 32/2018 aprobado el año pasado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, por primera vez los órganos de intervención de los ayuntamientos están obligados a prestar un control financiero interno anual. En el caso de Urnieta, se hará un control económico-financiero, tanto del Ayuntamiento como de las sociedades.
Añade que en ese plan se explican las acciones que se van a llevar a cabo este año, en las tres entidades. Cuando se ejecuten esas acciones, habrá que volver a explicar en el Pleno los resultados de esa ejecución, junto con un plan que recoja acciones de mejora.

Por lo tanto, el Pleno queda informado sobre el plan de control financiero de 2019.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du ez-ohiko osoko bilkura hau, goian adierazitako eguneko zazpiak eta hamahiruetan, eta nik, Urnietako idazkariak, hala egiaztatu dut, Alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las siete y trece en la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, Secretario de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D | 943 008 000 | 943 008 037 | urnietakoudala@urnieta.eus | urnieta.eus

**2019KO OTSAILAREN 28KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA**
**ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 28 DE FEBRERO DE 2019**

| | |
|---|---|
| Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López | Sin.: Mikel Pagola Tolosa |
| Idazkaria | Alkate-lehendakaria, |



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus